

II.—Landeretxe jaunak irakuñi dizkigu, Bidasotik aruntz, bere erialdean bildutako euskal-esakerak. Baidute beren gatza. Azkue jaunak bildutakoai, Landeretxe'nak eratzki bear zaizkio, ofela bata bestez lan osoa, gai ontan, gertu dedin.

III.—Azkue jaunak, euskal-esakeren biltza utzi gabe, beste lantxo bat artu du bere bizkar: *Euskal-somaketak*. Lantxo onek alako idazki berezi bat auretik darama, oraintxe egileak irakuñi diguna, adierazirik zenbat onura euskerari dakarzkieten lantxo abek, naiz berez mirixkak iritxi. Aldi auxe Euskaltzaindiari eroso datorkio, Amerika'ko euskaltzale batzuei eskerak emateko, dakizkiten somaketa batzuek argitaratu dituztelako, ofetarako ari emen-da *Kirikiño*'z esaguna dan idazleak.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta ototzez amaitu da batzaraldia.

---

## Bilbo'n, Aldundi-Jauregian, 1925'ko Urila'ren 27'an.

Auruko batzaraldian aipatzen diran euskaltzain eta urgazle berak datoz eta baita ere Ormaetxea.

I.—Bähr urgazle jaunak lan eder bat irakuñi digu: Gipuzkoa'ko euskalkiaren adizkerak. Erúz bildu ditu noski. Urkijo jaunak Euskaltzaindiari bereziz eskatu dio, bere zuzendaritzako *Revista Internacional*-en Bähr jaunaren lan auxe argitaratzeko baimena. Euskaltzaindiak baiezkoa eman dio. Onen antzeko lan edera badu Azkue jaunak: Bizkai'ko euskalkiari dagozkion adizkerak. Gure *Euskera*'n lan au argitaratzeko erabakia Euskaltzaindiak lendik artua dauka.

II.—Ormaetxea urgazle jaunak bere txosten bat ira-

kuñi digu. Txosten au Erizkizundi-lrukoitza dala-ta egiña dago. Iru zati ditu: 1.º Erizkizundiaren zailtasuna; 2.º en, beronen itxurazko alperbidea; 3.º en, oñen-txen onura ta onbidea, baldin auñetik *Atlas lingüístico* egiten bada.

III.—A. Intza'k Napañoa'ko euskal-esakera batzuk irakuñi dizkigu.

IV.—Ildako urgazle Pedro M. Urúzuno idazle atsegintsailearen ordezt, beste urgazle bat aukeratu bear da: Euskaltzaindiak Donostia'ko asteroko *Argia*'ren Zuzendari dan Biñor Garitaonandia jauna ortarako aukeratu du.

V.—Euskaltzain batzuek Euskalerititik uruti dijoaz: eren arazoak aruntz deitzen ditu: abek Altube eta Olabide jaunak dira. Aben ordezt, biurtzen diran arte, urgazle batzuek aukeratu bear dirala Euskaltzaindiak deritza, ileroko batzañaldietan bear ain euskaltzain izan ditezen. Bilbo'ko batzañaldietarako Nazario Oleaga eta Nikolas Ormaetxea aukeratu dira eta Donostia'koetarako Gregorio Muxika eta Biñor Garitaonandia.

Ta beste gairik izan ez-ta otoitzez amaitu da batzañaldi au.

---

### Donostia'n Aldundi-Jauregian, 1925'ko Azaroa'ren 26'an.

Batzañ ontara euskaltzain abek datoz: Azkue, Kampion, Urkijo, Landeñetxe, Olabide, Intzagarai, Intza eta Labonbe eta urgazle diran euskaltzain ordeztakoak Muxika ta Garitaonandia.

Otoitzez asi da batzañaldia.